

horoskopoa

A R I E S

martxoak 21 - apirilak 20

Ispiluaren aurrean mila bider jarrita, aurpegiaren itxura ez zaizu aldatuko.

T A U R U S

apirilak 21 - maiatzak 20

Zer dira sudurretik zintzilik dituzun berogailu bat eskatu.

G E M I N I

maiatzak 21 - ekainak 20

Laranja gehiago jan beharko zenituz- aldean duzun gripea kentzeko.

C A N C E R

ekainak 21 - uztailak 21

Sudurzulo txikiak dituzula uste duzu? Atzamarra beti sudurrean izateko!!!

L E O

uztailak 21 - abuztuak 23

Lau hankako euliak baino txarragoak dira hanka bikoak. Argi ibili!

V I R G O

abuztuak 24 - irailak 23

Gorbata jantzita nora zoaz? Horrela zaudela uste duzula??? Akabola!

L I B R A

irailak 24 - urriak 23

Ileak tente jartzeko moduko itxura duzu gaur. Zer demontre egin duzu?

S C O R P I U S

urriak 24 - azaroak 23

Oraindik ez dira inauteriak! Joan zaituzte etxera eta itxuroso jantzi zaituzte!

S A G I T A R I U S

azaroak 23 - abenduak 23

Zenbat karta, zenbat telefono dei... Zu bai zu pertsona garrantzitsua.

C A P R I C O R N I U S

abenduak 24 - urtarrilak 20

Isilik egoteko esan arren ere, zu txau-txau... Milaka mingain izango dituzu.

A Q U A R I U S

urtarrilak 21 - otsailak 18

Kontraesanez josita dago zeure burua. Ez dakit nola ez zaren zorabiatzen.

P I S C I S

otsailak 19 - martxoak 20

Horman kolpeak emanda ez dira gauzak konpontzen. Horma erori daaaaa!!!

Uxue Agirre

efemerideak

Norbert Tauer hil zen

1983. urteko urtarrilaren 28an hil zen Norbert Tauer idazle eta euskaltzale txekiarra. Diplomatiako zela Madrilen bizi izan zen hamar urtez. Zeruko Argia, Eusko Gogoia, Oleria eta beste zenbait aldizkaritan kolaboratzaile izan zen. Euskaraz idatzirikoa obra batzuekin sariak irabazi zituen, esate baterako, Euskeraren Pizcundea libururekin 1959an. Txekieraz euskal gramatikaren eta euskal esaera eta atsotitzet buruzko liburuak idatzi zituen.

1879. Tiburcio de Astuy El Euskaldunaren fundatzailea hil zen.

1982. Manu Robles ELA sindikatuko presidentea izan zena hil zen.

SANTUAK Antxiko, Tomas Aquino-koa, Pedro Nolasko.

telebista - irrataria

plano hurbila

♦ Antton Elorza ♦ Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteko lehendakariordea

«Futbola telebistaz emateak kalte egiten digu, nabarmen»

Antton Elorzak, Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteko lehendakariordeak adierazi digunez, «futbola telebistaz emateak kalte handia egiten dio ostalaritza sektoreari». Berak azpimarratu digunez, «ez gaude futbolaren kontra, telebistan futbola gehiegi emititzearren kontra gaude, konpetentzia desleialaren kontra gaude, eta hau guztia konpontzea nahi dugu».

■ Espainiako Futbol Liga Profesionalak aste honetan kaleratutako inkesta baten arabera, «telebistaz ematen den futbolak ez dio kalterik egiten ostalaritzari». Hori dela-eta futbol emanaldien ordutegia -larunbatetan 20.30etan telebista autonomikoetan eta igandetan Canal Plusen 19.30etan- ez duela aldatuko azpimarratu du. Zer iritzi du ostalaritza sektoreak horren gainean?

Guk garbi ikusten dugu futbola telebistaz emateak kalte egiten digula. Oso eragin handia du. Futbola telebistaz ematen denean tabernak hustu egiten dira, kalean ere jende gutxiago ibiltzen da, trafikoa ere moteldu egiten da... Futbola telebistaz ematea ez da ostalaritzan dagoen arazo bakarra, beste batzuk ere bada dira, baina futbola telebistaz emateak ez digu onik egiten.

■ Joan den azaroaz geroztik bederatzietan beharrean zortziak eta erdietan ematen dute futbola telebistaz larunbatetan. Igarri da diferentziarik?

Bai. Izan ere, partidua zortziak eta erdietan hasten bada

ere, partidua hamarrek alde- ra amaitzen da, eta nahiz eta berandutxo izan, batzuk irte- ten dira kalera. Baina bederatzietan hasten zenean, ia hamaikak ziren amaitzen ze- nerako, eta jada kalera irte- teko berandu da askorentzat.

■ Zenbateko galera sortzen dio ostalaritzari futbola telebistaz emateak?

100.000 milioi pezetako galera dago Estatuan. Espai- niako Estatuko 412 jatetxe- tan egindako azterketa baten arabera, jatetxeak % 60 be- tetzen dira, eta futbola dagoe- nean % 22 inguru baino ez dira betetzen. Horrela jarrai- tuz gero, Estatu osoan 12.000 lanpostu kinka larrian izango dira. Baremo horiek ezin dai- tezke toki guztietan propor- tzio berean banatu; izan ere, Madrilen edo Bartzelonan toki batetik bestera mugitzeko denbora asko behar duzu; Do- nostian, ordea, gutxiago. Gauzak horrela, Donostian esaterako, errazago mugi zai- tezke etxetik kalera eta kaletik etxera. Galera handiagoa da hiruburu handietan.

■ Ostalaritzako sektorearen proposamena zein da hau guztia konpontzeko?



Antton Elorzak Antton izeneko jatetxea du Oñatin.

MANU MUJICA

Gu ez gaude futbolaren kontra. Hori absurdoa da. Gu gehiegikeriaren eta konpe- tentzia desleialaren kontra gaude. Aste askotan hiru egunetan ematen dituzte fut- bol partidua telebistaz: asteazkenetan, larunbatetan eta igandetan. Gehiegi derit- zogu horri. Jendea, gaur egun, batez ere larunbat iluntzetan irteten da kalera; eta egun horretan justu bo- tatzen badute futbola tele- bistaz, guretzat akabola! Gure- zat onena larunbatetan par- tidurik ez ematea izango litza- teke. Edo, bestela, igandetako partidua eta larunbatekoa al- datzea; hau da, larunbatetan Canal Plusetik ematea eta igandetan autonomikoetatik.

European adibidez, arratsal- deetan ematen dituzte parti- duak, eta larunbatetan ez dute ematen.

■ Coca-Cola, El Aguila, La- rrios, Osborne, Pascual eta beste hainbat enpresek era- baki dute futbola emitituko den zelatik publizitatea kentzea emisio egunean. Ostalaritzako sektoreari el- kartasuna adierazteko as- moz erabaki dute hori.

Horrek erakusten du arra- zoi pixka bat badugula. Are gehiago, Madrildo Diputatuen Kongresuari horri guztiorri irtenbide bat emateko eskatu diote. Arazoa, beraz, ageri- agerian dago.

I. Basterretxea
Donostia

t . x . o . r . i . t . x . o . a . r . i . m . o . k . o . k . a

Etorkizuna

omen ditu. Pirinioez alde bietan dira txobinistak, baina hexagonoan kul- tura zezen larruan baino balio han- diagokoa da, itxuraz. Sariak ere li- buruak dira han, eta dirua hemen. Euskarak, minutu pareta bietan.

Ez dut inor mindu nahi. Zer dela eta joaten dira lehiaketa partehartzaila joan ere joaten direnak? Question pour un Champion horretan askotan agertu izaten dira langabeak, eta pantailak eskaintzen dien tarte hori baliatu nahi izaten dute lana eska- tzeko. Noski, ez dakit nik gero inork enplegatzen dituen, baina publizita- tea egiten dute, eta kateak berak bere buruaren erretratua eskaintzen du. Zer ez den egin behar lanen bat topa- tzearen. Frantziako telebistak Es- painiakoak eta ETBk baino askoz ere gehiago egiten du langabeen alde, eta ez pantaila langabetuei eskainiz ba- karrik. Langabe dauden prestakuntza ikastaroak iragartzen dira, lan eskaintzen berri ematen da, nik da- kita ba zer ez den egiten. Pirinio mendiez hegoaldera, ezer ere ez. In-

geles ikastaroa. Eta nahikoa. Telebis- tek atzean duten tradizioa islatzen dute, atzean duten kultura, atzean duten historia.

Hegoaldera hauteskundeen pregoi- laria ailegatu den honetan gogoeta egiteko tenorea ere ailegatu zaigu. Hurrengo hauteskontzietan botoa oraingoak ez diren beste horien alde joanez gero, zer? Aldatu egingo al di- tuzte telebistako berri-kazetariak? Baiezkoan nago. Frantziako kate publikoak horretan ere eredia dira. Kazetariak Errepublikako lehenda- kariari moztan diote hitza, eta hu- rrengo hauteskundeen ostean ez di- tuzte aldatzen. Noski, ez dut BBC ai- patuko, gose denari sukaldearen es- kuminak ematea ez baita bidezko. Telebista bakoitzak programazioaren bidez ezezik halakoei esker ere ema- ten digu atzean duenaren berri. To- kian tokiko kultura politikoa islatzen dute. Zezen larrukook badakigu kul- tura hori zertan den. Gorri dugu etorkizuna.

Edorta Jimenez